



# GENERO IKUSPEGIA LANBIDE HEZIKETAN LANTZEKO GIDA

# GENERO IKUSPEGIA LANBIDE HEZIKETAN LANTZEKO GIDA

## EGILEA



## PARTE HARTU DUTE

GEMA CELORIO  
LUCÍA LÓPEZ MARCO  
MARTA MARTÍNEZ AGUDIEZ  
ANNA MUÑOZ GIL  
ALICIA SEVILLA ATIENZA

## PORTADA ETA ILUSTRAZIOAK

PILAR SERRANO

## ITZULPENA

IÑIGO GALLASTEGI

**2023KO URTARRILA**

## LAGUNTZAILEA



## AITORTU-EZKOMERTZIALA 4.0 NAZIOARTEKOA(CC BY-NC 4.0)



Dokumentu honek Creative Commons lizentzia du.

Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea, betiere egilea aitortzen bada eta merkataritza-xedeetarako ez bada. Ez dago baimenduta lan hau aldatzea, eraldatzea eta honetatik beste lan bat erortzea.

Lizentzia osoa, hemen: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc/4.0/deed.eu>

**ARGITALPEN HONEN EDUKIA JUSTICIA ALIMENTARIA ERAKUNDEAREN ERANTZUKIZUN ESKLUSIBOA DA ETA EZ DU ZERTAN AECID-EN IRITZIA ADIERAZI.**

## EDUKIEN AURKIBIDEA

● NOR GARA?.....	3
● SARRERA.....	4
● ZERGATIK TXERTATU GENERO-IKUSPEGIA IKASGELAN?.....	5
● ZER DIRA ETA ZERGATIK SORTZEN DIRA FEMINISMOAK?.....	9
● EKO FEMINISMOA: EKOLOGIA ETA FEMINISMOA UZTARTUZ.....	11
● ELKARRIZKETA BEHARREZKO BAT.....	14
● NEKAZARITZA ETA ELIKADURA SISTEMA IKUSPEGI EKO FEMINISTA BATETIK.....	19
● NOLA LANDU GENEROA IKASGELAN.....	25
● IKASGELAN LANTZEKO JARDUERA PROPOSAMENAK .....	26
● 1. JARDUERA: ZER GERTATUKO LITZATEKE GURE NORTASUNAREN ALDERDIREN BAT ALDATUKO BAGENU?....	26
● 2. JARDUERA: ITXI BEGIAK ETA IMAJINA EZAZU PERTSONA BAT .....	27
● 3. JARDUERA: ZER DA EKONOMIA?.....	29
● 4. JARDUERA: EMAKUMEA ETA ELIKADURA BURUJABETZA.....	30
● 5. JARDUERA: ABESTIAK ETA EKO FEMINISMOA.....	35
● BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA.....	40

## NOR GARA?



Justicia Alimentaria elkarteak nekazaritza eta elikadura sistema aldatu beharra dagoela uste duten hainbat lagunek osatzen dute. Pertsonak eta lurraldeak erdigunean jartzen dituzten eredu berriak lortzea du helburu.

Honako bide hauetatik jar zaitezke harremanetan gurekin:

✉ [hezkuntza@justiciaalimentaria.org](mailto:hezkuntza@justiciaalimentaria.org)

☎ 94 496 11 75 | 652 392 057 | 722 348 797

📍 C/San Diego 3, 1º  
48910 Sestao (Bizkaia)



## ALIMENTACIÓN

ALIMENTACIÓN Justicia Alimentariak 2010ean sortutako gizarte eta hezkuntza programa bat da, 2014az geroztik EHuko Hegoa – Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuarekin batera lantzen duena. Ekimen hura hezkuntza formalean kokatzen da gure elikaduraren eta horrek ingurunean, osasunean eta pertsonen eta komunitatearen bizi-baldintzetan duen eraginaren gainean hausnartzeko jarduketara-ardatz gisa. ALIMENTACIÓN programatik Elikadura Burujabetzaren printzipioetan oinarritutako eredu alternatibo bat bultzatzen dugu, genero-ikuspegia erabiltzen duena eta landa-eremu bizia sustatzen duena. Horretarako ikastetxea dinamizazio-ardatz gisa hartzen dugu komunitate osoa tartean sartzeko.

## MINFORMAZIO GEHIAGO

🌐 [redalimentacion.org](http://redalimentacion.org)

📷 [@redalimentacion](https://www.instagram.com/redalimentacion)

## SARRERA

Honako gida hau Lanbide Heziketako irakasleei zuzenduta dago eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiten laguntzeko baliabide bat izan nahi du, hezkuntza proaktiboa erabiliz. Gidaren edukien bitartez emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa ikasketa horien curriculumean eta irakaskuntzan zeharka txertatzen laguntzeko helburua du.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa zeharka lantzeko beharra hainbat arautan jasota dago, hezkuntza eremuan zein berdintasun politiken arloan. Arauek, ikasleen arteko sexu araberako diskriminaziorik ezaz gain, haien arteko berdintasuna sustatuko duen heziketa proaktiboa bultzatu beharra dagoela adierazten dute. Helburu horrek, bada, honako hau eskatzen du:

- Genero-ikuspegitik ikasleen egoera akademiko-profesionala eta helburu duten lan merkatua aztertzea.
- Trebakuntza-maila bereko emakumeek eta gizonek beren lanean eta lanbide-karreran dituzten desparekotasunak identifikatzea.
- Ikasleen heziketa fasean eta helburu duten lanbide-arloan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko dauden oztopoak ezabatzea.
- Ikasleen prestakuntza-prozesuan, lanbidean eta lan-inguruan emakumeen eta gizonen arteko benetako lan berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko aukerak eskaintzea.


Gida honen edukiak irakasleentzat erabilgarriak izan daitezen eta, gure esparrutik, berdintasunezko gizartea eraikitzen lagun dezaten espero dugu.

## ZERGATIK TXERTATU GENERO-IKUSPEGIA IKASGELAN?

Lanbide Heziketan (aurrerantzean LH) egiten dugun lanaren parte gisa, feminismoa ikasgeletan modu zuzen, deigarri eta eraldatzailean txertatu beharra identifikatu dugu. Izan ere, aurreko ikasturteetan gurekin lan egin duten irakasleen eskakizun bat da hori.

Hezkuntza formalaren kasuan, hezkidetzak oraindik betetzeko dagoen erronka da. Orokorrean, aukera berdintasuna, neskek eta mutilek curriculum bera izatea eta biek eremu berean ikastea, berez, hezkuntza ez sexistaren sinonimoa delako ustea dago.

Aitzitik, gizarte harreman oro nagusi den kultura ikastearen eta barneratzearen eraginpean dago eta, kultura horretan, sexismoa, matxismoa, patriarkatua, heteroaraua, genero-identitateak eta abar gure sozializazioaren parte izan dira eremu formal zein informaletan. Hortaz, ulertu behar dugu hezkuntzako edozein esku-hartzek errealitate hori kontuan izan behar duela hura eraldatu nahi badu.



Zentzu horretan, bada, testuliburuak, curriculumak, ikasgelak eta erabilera komuneko eremuak begiratzea besterik ez dugu. Lidergoa nortzuk duten, nortzuk hitz egin ohi duten eta lanbide-arlo bakoitzean dauden nesken eta mutilen kopura begiratuta, agerikoa da bidean zerbait galdu dugula. Oraĩndik uste dugu irakaskuntza-ikasketa prozesuak neutroak izan daitezkeela; transmititutako jakintza eta kultura monolitikoak, homogeenak eta zehatzak direla; autoritatea inposizioa dela... eta ez du zertan horrela izan.

Baina sinemen horiek ez dira kasualak, eskolan gertatzen denaren adierazgarria dira eta diskurtso hegemonikoen parte dira. Horiek interesak dituzte eta erreproduzitzeko asmoz komunikatzen dira. Lan-eremua, pertsonen arteko harremanak, maitasun harremanak, hedabideak, eta abar diskurtso eta irudi oso sexistez beteta daude.

Feminismoa, beraz, gizarte harremanak, ezagutza eta, azken finean, giza ekoizpen guztia (batez ere maskulinoa) bizitzaren esparru guztietan menperatu dituzten printzipio patriarkalak eta androzentrikoak kolokan jartzen dituen mugimendu soziopolitikoak da.

Kritika erradikal horretatik, pedagogia feminista eta hezkidetza osatuko duten proposamenak sortuko dira. Garrantzitsu ikusten dugu proposamen horiek LH mailan aplikatzea herritartasun kritiko eta eraldatzailea sortzeko hezkuntza baten parte gisa. Hortaz, kontzientziazioa jartzen dugu lehentasun bezala; arazoa "ikusi" behar dugu. Gero, diagnostikoa zehatzak erabiltzea, hezkidetza-estrategiak abian jartzea, desparekotasunak bistaratzea eta salatzea, androzentrismoa borrokatzea, neskak ahalduntzea, borroka feministak ezagutzea eta berdintasunaren alde lan egiten duten emakume eta erakunde ugarien eginkizuna aintzat hartzea. Ez dago errezetarik, bai, ordea, ikaspenak eskaintzen dizkiguten esperientziak eta sortu beharreko estrategiak.

Gida honen bitartez, Justicia Alimentariatik oinarritzko LHn zein erdi eta goi mailako titulazioetan lantzeko jarduerak proposatu nahi ditugu. Gure helburua da matxismorik gabeko mundu libre bat sortzeko bidean agertzen zaizkigun gizarte erronkak ulertzeko funtsezkoak diren gaiak mahaigaineratzea. Beraz, gida honetan, LHko ikasgeletan hainbat gai lantzeko jarduerak aurkezten dizkizugu, sistema patriarkala eta elikadura burujabetza lotzen dituztenak (landa-eremua, elikagaien publizitatea, zaintzaren etika, osasun integrala...), eta hezkuntza feminista sortzeko arrakalak eragiten ditugu.





## ZER DIRA ETA ZERGATIK SORTZEN DIRA FEMINISMOAK?

Feminismoa berdintasuna eta sexuek elkar errespetatzea aldarrikatzen duen mugimendu soziopolitiko da. Emakumeen askapenerako mugimendu bat da, patriarkatua gizateriaren zapalkuntza-sistematik zaharrena dela salatzen duena. Hau da, antzina-antzinatik, patriarkatuak botere (ekonomiko, sozial, juridiko...) gehiago ematen dien gizonei beren genero hutsagatik.

Patriarkatua matxismoaren bitartez irauten du eta matxismoa denborarekin eraldatzen doa eta desberdina da eremu geografikoaren arabera. Hau da, Espainian gaur egun jaiotako neska batek bere amonak baino eskubide gehiago ditu. Horrek ez du esan nahi leku berean eta antzeko ezaugarri sozioekonomikoak dituen familia batean jaiotako mutil baten eskubide berdinak dituenik. Halaber, ez ditu beste herrialde batean, esate baterako Saudi Arabian, jaiotako neska baten eskubide berdinak.



Hala ere, eta izan daitezkeen aurrerapausoak gorabehera, matxismoak irauten du pertsonak bi bloke hauetan banatzen direlako jaiotzean: gizonak eta emakumeak. Banaketa horrek, bada, ezaugarri, betebeharrak eta itxaropen jakin batzuk dakartza, gizarteak pertsonen sexuaren arabera inposatzen dizkienak. Horri generoko sozializazio binario esaten zaio, izan ere gizonak eta emakumeak baino ez ditu aintzat hartzen. Gizarteak, beraz, genero bakoitzari egokitutako rolak betikotzen ditu ezagutzen ditugun gizarte kanal guztien bitartez: hezkuntza, familia, herri kultura, telebista, zinea, legeak...

Beste alderdi garrantzitsu bat da genero banaketa hori, desparekotasun hori ez dela modu absolutuan ematen. Hau da, emakume izateak ez du berez eragiten gizonen azpian egotea; aitzitik, diskriminazio hori matxismoa, LGBTIfobia edo kapazitismoa bezalako botere-sistemen ondorio da.



Beraz, zer esan nahi du feminista izateak?

- Feminista izatea pertsona guztiek eskubide eta aukera berdinak izan ditzaten nahi izatea da, generoa alde batera utzita.
- Emakumeek egiten duten lana aintzat hartzea da.
- Gizartea eraldatu eta berdintasunezko eta bidezko bilakatu nahi izatea da.

## **EKOFEMINISMOA: EKOLOGIA ETA FEMINISMOA UZTARTUZ**

Feminismoaren barruan hainbat joera daude. Hau da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde borrokatzeko hainbat modu. Horietako bat ekofeminismoa da, bi mugimendu hauen elkargunetik sortzen dena: ekologismoa eta feminismoa. Joera horren izena Françoise d'Eaubonne (1920 – 2005) aragoiar jatorriko idazle feminista frantsesak sortu zuen. Hark 1974an argitaratutako *Le féminisme ou la mort* saiakeran aipatu zuen lehen aldiz ekofeminismoa.

Ekofeminismoak, bada, emakumeen eta naturaren arteko loturak lantzen ditu kulturen, ekonomian, erlijioan, politikan, literaturan eta ikonografian, eta naturaren zapalkuntzaren eta emakumeen zapalkuntzaren arteko paralelismoak aztertzen ditu. Paralelismo horien artean ditugu, besteak beste, emakumeak eta natura jabetza gisa ikustea eta nola gizonek emakumeak menperatzen dituzten eta gizakiek natura menperatzen duten. Ekofeminismoa, beraz, biak, emakumeak eta natura, errespetatu beharra dagoela azpimarratzen du.



Pentsamolde hau 1970ko hamarkadako hainbat saiakerekin sortzen da, feminismoaren eta ekologismoaren arteko lehen loturak ezarriz. Argitalpen horietan, emakume feministek zapalkuntzarik gabeko gizarte batekin amets egin zuten eta, hori lortzeko, gizarte ekologikoa, deszentralizatu, ez hierarkikoa eta ez militarizatu, demokratikoa eta ingurumena errespetatzen zuten teknologiak erabiltzen zituen eraiki beharra zegoela ondorioztatu zuten. Hamarkada horretan, ideia ekofeministak indar handiz agertu ziren hainbat herrialdetan, orduan hasia baitzen gizartearen zenbait arazo ekologikoz ohartzen. Horren adibide dira Rachel Carson itsas-biologo eta kazetariaren ikerketak. Carstonek dicloro difenil tricloretanoz (DDT) egindako fumigazioek hegaztietan eta, elikadura katearen bitartez, gizakietan ere zituzten ondorioak salatu zituen 1962an.

Ekofeminismoak, beraz, modu kritikoan begiratzen dio gure gizarte-ereduari eta bestelako garapen-eredu bat proposatzen du, konturatzen baita gizakia ekosistemen parte dela eta haren ekintzek naturaren zaintzan edo hondatzean eragiten duela. Gainera, ekofeminismoak badaki gaur egungo garapen-ereduak ekosistemak pobretzen dituela. Hala, ekofeminismoa ekologismoaren eta feminismoaren arteko elkarrizketa da eta mugimendu bietako osagaiak hartzen ditu pertsonekin eta planetarekin bidezkoagoa de gizarte bat sortzeko.

Gizarte bezala, gure helburua ekonomia haztea da, baina ekonomia horrek ez ditu kontuan hartzen pertsonen premia, ezta naturaren muga ere. Horrek inguruaren ikuspegi oso utilitarista ematen du, bai naturarena, bai izaki bizidunena; zehazki, emakumeena, jatorrizko herriena, hegoalde globaleko biztanleena eta pertsona landatarrena. Gizarte horrek, beraz, boterarik ez duten pertsonak erabiltzen ditu garapena lortzeko.

Ekofeminismoak buelta eman nahi dio eskema horri. Haren ustez, ekonomia beharrezkoa da; izan ere, hura, etimologikoki, etxearen kudeaketa da eta gizartea aurrera eramateko beharrezkoa dugu. Baina ekonomia gizartearen zerbitzura egon behar da, eta ez aldrebes. Gainera, ekonomiaren helburua gizakien ongizatea lortzea eta haien oinarritzko premiak asetzea izan beharko litzateke. Ildo horretatik, ekologismotik "bizi-kalitate" kontzeptua hartzen du, "bizi-maila" kontzeptuarekin alderatuz: helburua ez da asko edukitzea, baizik eta guztiok ondo bizitzea, gure jatorria edozein dela ere.

Gizarteak aintzat hartu behar du non bizi den eta zeintzuk diren leku horren mugak, naturarekin komunikatu behar du eta ez du hura objektu ustiagarri bezala tratatu behar. Gaur egungo sistema ekonomikoa ezin da planeta osora zabaldu: iparralde globalean dugun bizi-maila ez da bideragarria planetaren biztanle guztientzat. Munduko lagun guztiak Espainiako estatuan dugun bizi-maila bera izateko, 2,5 planeta beharko genituzke. Beraz, nola da posible?

- Datozen belaunaldien baliabideak gastatzen ditugulako.
- Beste lurralde batzuetako baliabideak gastatzen ditugulako (zor ekologikoa).
- Ingurumen eta klima krisien kontura bizi garelako.

Zentzu horretan, ekofeminismoak azpimarratzen du krisi ekologikoa dagoela, hau da, biosferaren aldaketa globala gertatzen ari dela. Klima-aldaketa (atmosfera- eta itsasoaren tenperaturaren igoera berotegi efektuko gasen ondorioz, batez ere CO<sub>2</sub>aren ondorioz) krisi ekologiko horren sintoma bat da.

Horren aurrean, ekofeminismoak honako hau esaten digu:  
Ez lurra eta ez emakumeak ez gara konkistatzeko lurraldeak.

## ELKARRIZKETA BEHARREZKO BAT

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko bidean egindako pausoak gorabehera, oraindik bide luzea dago ibiltzeko benetako berdintasuna lortzeko. Horretarako, generoko estereotipoak alde batera uzten ikasi behar dugu. Izan ere, adibidez, abeltzaintzan dabilen pertsona bat imajinatzen dugunean, oro har, gizona datorkigu burura; aitzitik, menpeko pertsonak artatzen dituen pertsona imajinatzean, emakumea datorkigu burura, oro har, migrantea ere. Estereotipo horiekin hautsi beharra dago eta, horretarako, ezinbestekoa da ikasleei erreferenteak eskaintzea: emakume abeltzainak eta zaintza lanak egiten dituzten gizonak erakustea, eta adibide horiek gainontzeko lanbide guztietara zabaltzea.



Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko ibili beharreko bide luzeaz gain, klima-larrialdiko testuingurua dugu gaur egun. Eta, horrekin ere, jakintza ekologiko tradizionalen krisi sakona; izan ere, jakintza horiek hilobira joaten ari dira gure amonekin batera eta funtsezkoak dira gaur egungo klima-aldaketako testuingurura egokitzeko. Egoera ikusita, ekofeminismoa -feminismoaren eta ekologismoaren arteko elkarrizketa hori, aukera eta eskubide berdintasunaren eta bizi garen planetaren aldeko borroka hori-inoiz baino funtsezkoagoa da.

Krisi klimatikoaz eta jakintza tradizionalen galeraz gain, energia fosilaren agortzea eta erregai fosilekiko dugun menpekotasun handia ikusten dugu. Biosferaren mugak gainditu ditugu, baita giza mugak ere.

Hala, ekonomiak ekoizpenaz eta merkatuaz hitz egiten digu, baina hori ikusten den zatia besterik ez da, icebergaren tontorra. Izan ere, horiek mantentzeko beharrezkoak dira naturatik erauzten ditugun baliabideak eta lan ordaindua (icebergaren tontorra) sostengatzen duen zaintza-sarea.





Lehen aipatu bezala, ekofeminismoa ziurtasun bi hauetan oinarritzen den pentsamendu-korrontea eta praktika politikoa da:

- Izaki ekodependenteak gara: hau da, bizitzeko behar dugun guztia naturatik ateratzen dugu: janaria, ura, mineralak, eraikitze materialak, jantzia, energia fosila, argindarra, etab.
- Izaki interdependenteak gara: hau da, jaiotzen garenetik elkarren menpe gaude, bai haurtxoak garenean eta bai nagusitan ere. Gure alaba zainduko duen amama behar dugu edo, triste gaudenean, kontsolatuko gaituen norbait; edo, gure bizitzaren amaieran, oinarritzko premiak asetzen lagunduko digun pertsona bat. Bakarrik bizi bagara ere, beste pertsona batzuekin kontaktu handirik ez dugula, besteak behar ditugu farmaziara goazenean, edo merkatura, edo garajera. Besteak behar ditugu bizitzeko.

Gaur egun, ekologia, ekonomia eta osasun krisiak bizi ditugu eta hori, bada, hondamendia da zibilizaziorako; izan ere, jende askorentzat sozial eta politikoki ikusezina den krisi sakonaz ari gara. Haren iturria giza bizitza sostengatzen duten oinarri materialak aintzat hartzen ez dituen eredia da, giza bizitzari eta planeta osoko bizitzari gerra deklaratu diona. Izan ere, lehen aldiz, espezie asko arrazoi ez naturalen ondorioz desagertu dira.

### **BAINA, ZER EZIN ZITEKEEN FALTA GAUR ARTE BIZIRIK HELTZEKO?**

Natura. Izaki erabat ekodependenteak gara: inguru natural batean bizi gara eta horretatik lortzen dugu behar dugun guztia.

Jaten ditugun elikagaiak ez ziren posible izango nekazariei esker izango ez balitz, noski, baina baita fotosintesirik edo polinizaziorik gabe, eta azken horiek ezin dira fabrikatu. Halaber, ura behar dugu eta ura ez dugu gizakiok ekoizten, baizik eta kontrolatu ezin dugun uraren zikloak. Energia behar dugu egiten dugun guztirako eta energia ekoizteko lurrazalean dauden mineralak behar ditugu, ezin ditugu guk produzitu.

Hala, gure gizarteak bizkarra ematen dio naturarekiko dugun menpekotasunari. Ez gara konturatzen garapena baliabide naturalei lotuta dagoela eta ez dugu aintzat hartzen planetak ere mugak dituela: baliabide mineralak, uraren zikloak (ura sortzeko abiadura baino azkarrago kontsumitzen denean, baliabide horrek mugak ditu), planetaren hustutegiak... Izan ere, hustutegi horiek -jarduera gizatiarrak eta ez gizatiarrak sortzen dituzten hondakinak degradatzen dituzten prozesu biologikoak- batzuetan buxatu egiten dira, hau da, ez dira sortutako hondakin guztiak degradatzeko gai eta, orduan, kutsadura arazoak agertzen dira, hala nola uraren, zoruaren edo atmosferaren kutsadura. Klima-aldaketa, esate baterako, atmosferako karbono hustutegiaren saturazio arazo izugarria besterik ez da.

Hau da, gure planetak muga fisikoak ditu. Ondorioz, ezerk ezin du neurri gabe hazi, hazteko lurrazaleko edo naturako ondasunak behar baditugu, horiek mugatuak direlako. Hor dago, hain zuzen ere, etengabe hazi beharreko ekonomiak sortzearen ondorioz testuinguru eutsiezina eragiten duen lehenengo tentsioa: lurrazaletik gero eta material gehiago erauzi, ziklo naturalak gero eta azkarrago baliatu eta gero eta hondakin gehiago sortu.

Materialki etengabe hazi nahi duen ekonomiaren eta muga fisikoak dituen planetaren arteko talka horri krisi ekologiko esaten diogu. Hura, bada, gaur egungo garapen-ereduek naturaren aurka eragindako gerraren ondorio da neurri handi batean. Batez ere mendebaldeko herrialdeen garapen ereduez ari gara, eta oraintsuagoko eredu ekonomiko kapitalistaz.

Sozialismo errealaren eredu zaharrek edo Txinako estatu-kapitalismoaren ereduak ere antzeko emaitzak eman dituzte; muga fisikoak dituen herrialde batean produktu kopuru gero eta handiagoak ekoitzi nahi dituzten ekonomiak baitira horiek ere.

Aipatu bezala, bi menpekotasun material nagusi ditugu. Lehenengoa ekodependentzia da eta bigarrena interdependentzia. Gure gorputzak kalteberak dira eta bitzta osoan zehar artatuak eta zainduak izan behar dira, beti izango baitituzte premiak: elikadura, jantzia, partaidetza, maitasuna, zaintzak...



## **NEKAZARITZA ETA ELIKADURA SISTEMA IKUSPEGI EKOFEMINISTA BATETIK**

Jende gehienak uste du hartzen ditugun elikagaiak gure ingurutik datozela, baina hori ez da egia. Supermerkatuan erosten dugun janariaren jatorriari buruzko informazioa bilatzen badugu, harrituko gaitu nola batzuetan ez den argi esaten elikagaia nondik datorren. Beste kasu batzuetan, elikagaiak beste herrialde batetik inportatu dituztela ikusiko dugu. Izan ere, ohikoagoa da Peruko “pikilloak” aurkitzea Nafarroakoak baino. Gauza bera gertatzen da Argentinatik datozen “Balentziako Laranjekin”.

Beste alde batetik, Espainiak ekoiztutako elikagai gehienak, ustategi intentsiboetatik datoz, maiz industrialak. Horietan, elikagai mota bakar bat ekoizten dute eskala handian eta produktu kimikoak erabiltzen dituzte izurriteei edo gaitzei aurre egiteko.

Halaber, Espainian kontsumitzen diren okela, esne eta arrautza gehienak ekoizpen industrialekoak dira, inportatutako pentsu transgenekoekin hazitako animaliena, eta, maiz, Europan debekatutako produktu kimikoak erabili izan dituzte pentsu horiek ekoizteko. Gainera, ustategi mota horietan animaliak instalazioen barruan itxita mantentzen dituzte, kalera irteteko eta beren portaera naturalak adierazteko aukerarik gabe.

Baina hori ez da guztia: haragi hori hartzean iberiar penintsulan tradizionala den eta gure paisaiak eta ekosistemak sortzen eta mantentzen lagundu duen abeltzaintza estentsiboarekin amaitzen ari gara. Abeltzaintza estentsiboa -eta harekin artzaintza- desagertzearekin batera espezie eta paisaia aniztasuna kaltetzen ari gara, suteak ugaltzea erraztuz.

Espanian, bost supermerkatu-kate handiek merkaturatzen diren elikagaien % 60 kontrolatzen dituzte eta herritarren % 25k supermerkatu bakar batean erosten dute: Mercadona. Supermerkatu-kate handi horietan aurkitzen ditugun elikagai gehienak, bada, eredu agroindustrial baten bitartez produzitu dira, hau da zoru emankorra eta bioaniztasuna desagerrarazten duen ekoizpen modu baten bitartez. Elikagai kilometrikoak dira eta horiek ekoizteko erabili dituzten praktikek klima-aldaketa laguntzen dute, emakumeen papera gutxien dute eta aberastasuna esku gutxitan kontzentratzen dute.

Gainera, kasu gehienetan, eredu agroindustrial horretan lan egiten duten pertsonak baldintza oso ezegonkorak dituzte. 2018An, esate baterako, Huelvako (Andaluzia) zenbait herritan marrubia eta fruitu txikiak jasotzen lan egiten duten hainbat emakume jorنالارik Asociación Jornaleras de Huelva en Lucha elkarteak sortzeko antolatu ziren: “Gure interesak zaindu beharko lituzketen eragileen eskutik pairatzen dugun abandonuaren aurrean, lanean pairatzen dugun egoera jasanezinaren aurrean eta gure sektoreak eragiten dizkigun bizi-baldintza latzen aurrean”, azaltzen dute beren web orrialdean: [jornalerasdehuelvaenlucha.org](http://jornalerasdehuelvaenlucha.org).



Web orrialde horretan ere honako hau azaltzen dute: «Herrietan bizi diren jornalari andaluziarrek gero eta aukera gutxiago dituzte landan lan egiteko. Maiz, nagusiek parerik gabeko migranteak kontratatzea nahiago dute, horiek gehiago esplota ditzaketelako haien egoera administratiboak eragiten duen eskubide faltagatik. Pertsona horiek bizi-baldintza lotsagarriak dituzte eta asko argia edo ura bezalako oinarritzko zerbitzurik gabeko txabolatan bizi dira».

Zoritxarrez, gaur egungo nekazaritza eta elikadura sistemak pertsona gutxi batzuk aberasteko helburua du, ez herritarrei jaten ematea. Helburu hori lortzeko, bada, nekazaritza intentsibo eta industrialean oinarritutako industria handi bat sortu dute elikaduraren inguruan. Ekoizpen eredu hori, bada, lurra, itsasoa, landareak, abereak eta pertsonak esplotatzean oinarritzen da, mundu mailan hondamendi handia eraginez.

Baina elikadura sistemaren ondorioak ez dira arlo produktiboan soilik ematen; eragin handia dute gure osasunean edo ekonomian ere, besteak beste. Izan ere, gaur egun, munduan, 690 milioi pertsona inguru gose dira. Oso deigarria da kopuru hori eta gehiegizko pisua duten pertsonen kopurua neurri berean hazten direla. Munduan, 2.400 milioi pertsona inguruk gehiegizko pisua dute eta horietako % 30 obesoa dira. Gehiegizko pisu hori ez da, oro har, asko jateagatik, baizik eta ezin dutelako elikadura osasungarria ordaindu. Izan ere, 3.000 milioi lagun inguruk ezin dute dieta osasungarria ordaindu. Herrialde askotan ez dago edateko urik eta botilaratutako ura multinazional handiek saltzen dute, saltzen dituzten azukredun freskagarriak baino askoz garestiago gainera.

Eta, esan bezala, ekonomian ere eragiten du. Ezer aldatzen ez bada, hurrengo hilabeteetan Terueleko esnetarako behien etxaldea desagertuko da. 30 urtetan, probintzia hori esnetarako behien 30 edo 40 ustiategi izatetik ia bat ere ez izatera igaro da. Halaber, ustiategi hori ixten badute, esnea hartzen dioten gaztandegi biek esnerik gabe geratuko dira: bat Ejulve herrian (Teruel) eta bestea Caspen (Zaragoza). Geratzen den ustiategi hori, 100 behi besterik ez dituen familia-baserria da eta diru-laguntzak behar ditu konkurrentzian oinarritutako gaur egungo elikadura eredura moldatzeko. Aldi berean, Europako esnetarako behien ustiategirik handiena Soriako Noviercas herrian instalatu nahi dute, 24.000 behi baino gehiago izango dituen.

Jakina, bi abeltzaintza horien eragina, ingurumenean zein gizartean eta ekonomian, guztiz kontrakoa da.

Gure elikadurak zenbat arlotan eragiten duen pentsatzen badugu, ulertuko dugu zein garrantzitsua den eta zer gutxi baloratzen dugun gizarte bezala. Bere eragina handia da baina, hala ere, nekazaritza-eredu industrialak aldatzeko ahalegin gutxi egiten dugu. Horren menpe gaude eta ondorio latzak ditu.

Baina hori ez da guztia. Nekazaritza-eredu industrialak, gainera, emakumeen lana gutxien du. Izan ere, munduko elikagaien % 70 emakumeek ekoizten dute baina lurren % 2 baino ez dute eta nekazaritzako kredituaren % 1 baino ez dute jasotzen. Espainian, kalkulatu da nekazaritzaren sektorean lan egiten duten emakumeen % 59k ez duela Gizarte Segurantzaren kotizatzen. Herrialde horretan, nekazaritza ustiategien titular diren emakumeen % 60 bost hektarea baino gutxiagoko lursailak dituzte eta % 5k soilik dute 50 hektarea baino gehiagoko ustiategiak.

1996an Via Campesinak elikadura burujabetzaren kontzeptua sortu zuen, hau da, herriek beren elikagaien ekoizpen, banaketa eta kontsumo politikak eta estrategiak erabakitzeko duten eskubidea, ekoizpen txiki eta ertainean oinarrituta eta ez nekazaritza-estraktibismoan. Kontzeptu hura kontuan hartzen badugu, pertsona batek Espainian duen dietak ez luke Ekuadorreko pertsona baten dieta bezalakoa izan behar, lurralde bakoitzean ekologikoki, sozialki, ekonomikoki eta kulturalki egokiak diren praktikak erabiliko dituztelako. Hain zuzen, ez da posible elikagai guztiak ekosistema guztietan ekoiztea.

Elikadura burujabetza gure helburua izan beharko litzateke gizarte bezala eta hura lortzeko bidea agroekologia da. Helburu hori lortzeko, lurra lantzen duten lagunez gain, kontsumitzaileek ere parte hartu behar dute. Hala, gure elikaduran eragiten duen guztiaz ari garela ulertu behar dugu: lan-  
eskubideak, zoruaren osasuna, genero-berdintasuna, klima-aldaketa, bioaniztasuna, tokiko ekonomia, landa-eremu bizia... Hau da, sistema-eredua guztiz aldatu behar dugu.





Nola lortuko dugu aldaketa hori? Ekofeminismoak bizitza erdigunean jarri nahi du. Horregatik nabarmentzen ditu ekodependentzia eta interdependentzia. Zentzu horretan, bide bakar bat eskaintzen digu: agroekologia eta elikadura burujabetza. Hau da, gutxi batzuen irabaziak bilatu ordez, lurra, itsasoa, animaliak, landareak, pertsonak eta herriak zaintzen dituen eredua. Eta hori ez da posible ez badugu emakume landatarren eta haiek egiten duten lanaren garrantzia aintzat hartzen.

Izan ere, burura herri bat datorkigunean, ikusi nahi ditugu ardiak larreetan, ortu txikiak, ur garbiko errekek, oiloak aske, pertsona zoriontsuak etxe bakoitzean, paisaia biziak, flora eta fauna anitza, jaki tradizionalen usaina eta beheko suak piztuta. Gaur egun, agroindustriaren eta beste makroproiektu batzuen mehatxupean dagoen mundu honetan, eredu agroekologiko eta ekofeminista baterantz ibili behar dugu horiek mantendu nahi baditugu.



## **NOLA LANDU GENEROA IKASGELAN**

Jende gehienak uste du hezkuntza arloan berdintasuna dagoela. Baina datuak genero-ikuspegitik aztertzen baditugu, ikusiko dugu oraindik desparekotasun asko daudela hezkuntza-sisteman. Hala, genero-arrakala LHko arlo jakinetan ikusten da bereziki, horietan neska eta mutil kopuru oso desberdinak baitaude zikloetan matrikulatuta. Gainera, arlo horietan, irakasleen artean ere emakumeen eta gizonen arteko desparekotasun handia egoten da kopuruari dagokionez. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun falta hori hezkuntza-arloko hainbat eremutan errepikatzen da, hala nola orientazio akademiko profesionala, materialak testuliburuak, curriculumaren edukiak, hizkera eta egiten diren komentarioak, etab. Genero-ikuspegia duen hezkuntza-eredu baten alde aurrera egiteko, irakasleek desparekotasunak identifikatu behar dituzte eta beren jardueran genero-ikuspegia txertatzeko ardura hartu behar dute.

Hala, genero-ikuspegia irakaskuntzan txertatzeak zenbait urrats eskatzen ditu, hala nola curriculuma berrikustea, hizkuntza eta gelan erakusten diren irudiak modu inklusiboan erabiltzea, genero-ikuspegia erabiltzen duten materialak eta testuliburuak sustatzea, emakumeen ekarpen sozial eta historikoa bistaratzea, sexista ez den orientazio akademiko profesionala ematea eta genero-indarkeria eta jokabide sexistak prebenitzea eta antzematea. Halaber, garrantzitsua da ikasleek genero-desparekotasunei buruz hausnartzea eta horiez jabetzea horiek ezabatu ahal izateko.

Jarraian ikasgelan egiteko zenbait jarduera proposatzen ditugu genero-berdintasuna eta ekofeminismoa sustatzeko.

## IKASGELAN LANTZEKO JARDUERA PROPOSAMENAK

### 1. JARDUERA: ZER GERTATUKO LITZATEKE GURE NORTASUNAREN ALDERDIREN BAT ALDATUKO BAGENU?

**Helburua:** Gainjarritako zapalkuntzak identifikatzea.

Pertsona guztiak izan ditugun aukeren eta hainbat aldagairen ondorio gara, hala nola non bizi garen, nongoak diren gure gurasoak, jaso dugun hezkuntza, gure gizarte-maila... Aldagai horiek gure nortasuna osatzen dute. Gizarteak aldagai horien arabera seinalatzen gaitu, begiratzen digu eta aukerak ematen dizkigu. Ariketa honetan, desberdintasun horiek identifikatuko ditugu ikasleekin batera eta irudikatuko dugu nolakoak izango ginatkeen gure nortasuna osatzen duten alderdiak aldatuko balira.

**Garapena:** Ikasleei beren nortasunean pentsa dezaten eskatuko diegu: non jaio dira, non bizi dira, zer nolako familiatik datoz, nondik datoz beren gurasoak, zertan egiten dute lan, zer gizarte-mailakoak dira, etab. Gero, honako galdera hauek egingo dizkiegu:

- Nola uste duzu aldatuko litzatekeela zure nortasuna leku berean jaiota azala beste kolore batekoa izango bazenu?
- Nola uste duzu aldatuko litzatekeela zure nortasuna zure gurasoak beste kontinente batetik etorri izan balira?
- Nola uste duzu aldatuko litzatekeela zure nortasuna gizon/emakume izan beharrean emakume/gizon izango bazina?
- Nola uste duzu aldatuko litzatekeela zure nortasuna beste sexu-identitate bat izango bazenu?

## 2. JARDUERA: ITXI BEGIAK ETA IMAJINA EZAZU PERTSONA BAT

**Helburua:** Pertsonak irudikatzean ditugun aurreiritziak identifikatzea ikasleekin. Jarduera honen bitartez erakutsi nahi dugu gizarte talde batzuei ezikusia egiten zaiela irudipen kulturaletan eta, ondorioz, gure imajinariotik kanpo daudela. Horregatik, barruan ditugun irudi estereotipatuak atera behar ditugu eta ikasleek inguruaren konplexutasuna aintzat har dezaten saiatu behar gara.

**Garapena:** Ikasleei begiak ixtea eskatuko diegu eta bakoitzak miresten duen pertsona batengan pentsatu beharko du (ikasten ari diren titulazioari lotutako lanbide batean lan egiten duen pertsona bat bada, hobeto. Ez du zertan famatua izan). Pertsona bat pentsatu dutenean haren izena idazteko eskatuko diegu. Ikasle bakoitzak eskua altxatu beharko du pentsatutako pertsonak honako ezaugarri hauetako bat edo gehiago baditu:



- Nork pentsatu du emakume batengan edo sexu ez binarioko pertsona batengan?
- Nork pentsatu du bere herrian bizi den pertsona batengan?
- Nork pentsatu du zuria ez den pertsona batengan?
- Nork pentsatu du gaztea ez den pertsona batengan?
- Nork pentsatu du sozialki erakargarria ez den pertsona batengan?
- Nork pentsatu du diru-sarrerara altuak ez dituen pertsona batengan?
- Nork pentsatu du indar edo gaitasun berezia eskatzen duen jarduera bat egiten duen pertsona batengan? Jarduera hori egiten duen emakume batengan ere pentsa genezakeen?
- Nork pentsatu du gure herrialdekoa ez den pertsona batengan? Eta hala bada, hegoalde globaleko herrialde batekoa al da?



### 3. JARDUERA: ZER DA EKONOMIA?

**Helburua:** Ikasleek ekonomia kontzeptuari buruz dituzten ideiak ezagutzea.

**Garapena:** Jarduera honetan ideia-jasa egingo dugu ikasleei ekonomia zer den galdetuz. Ikasleek galderari erantzundakoan hiztegiaren definizioa emango dugu:

Economipediaren arabera, baliabideak giza premiak asetzeko helburuz kudeatzeko modua ikertzen duen gizarte-zientzia da ekonomia.

Hitzaren etimologia honako hau da: antzinako grezieratik: del οίκος, «etxe» eta νέμωμαι, «administrazioa».

Ikasleek ematen dituzten erantzunak oinarri hartuta, galdera gehiago egin ditzakegu:

- Ekonomiaren alderdi guztiek diruarekin al dute zerikusia?
- posible da ekonomiarik gabe bizitzea?
- Etxeko betebeharrak ekonomia al dira?
- 'Ekonomia' kontzeptua irudikatzen duen zerbait pentsatuko bazenu, zer izango litzateke?

**Irakasleek gelan egin ditzaketan hausnarketak:**

● Inoiz pentsatu duzue zer gertatuko litzatekeen ez balego inor etxea atontzeko, harrikoa egiteko, arropa garbitzeko, janaria prestatzeko, zaborra ateratzeko, haur txikiak eta nagusiak zaintzeko eta gaixorik gaudenean gu artatzeko? Institutura joateko edo futboleko edo saskibaloian jokatzeko aukera izango genuke premia horiek bete gabe izango bagenu?

● Beraz, ikus dezakegu bi ekonomia mota daudela. Lan ordainduari lotutako bat (lan bat egiteagatik ordaintzen digutenenean), hau da, ekonomia produktiboa; eta lan ez ordainduari lotutako beste bat (ordaintzen ez dizkiguten lanak) edo ekonomia erreproduktiboa.

#### 4. JARDUERA: EMAKUMEA ETA ELIKADURA BURUJABETZA

**Helburua:** Landa-eremuko emakumeen eginkizuna bistaratzea eta gizartearentzat herrietako bizitza mantentzeak duen garrantzia hausnartzea. Emakume landatarrek hiriko bizitza sustatzen duen testuinguru globalean dituzten premiak ulertzea.

**Garapena:** Proposatzen ditugun lau bideoetatik bat aukeratu gelan ikusteko. Lehenengoa, 'Rural y mujer en cinco voces', herrian geratzea erabaki duten bost emakumeren kontakizuna da, elkarrikeria baten bitartez. Bigarrena, 'Rural es feminista', landa eremuaren eta mugimendu feministaren arteko lotura azaltzen duen film laburra da. Hirugarrena, 'Mujer y soberanía alimentaria', Andaluziako emakume talde batek elikadura burujabetzaren aldeko eragile gisa izandako esperientzia kontatzen digu. Laugarrena, 'Cerrando las brechas y desigualdad de género', Boliviako Yampara herriko zazpi komunitate indigenako bederatzi emakumeren lekukotza ematen digu, emakumeek lurra lortzeko eta eskubide kolektiboak erabiltzeko duten aukerei dagokienez, baita lortutako aldaketei dagokienez ere.



<b>Izenburua:</b> Rural y mujer en cinco voces	<b>Zuzendariak:</b> Bea Fadón eta Sonia Slutzki
<b>Iraupena:</b> 29 min	<b>Esteka:</b> <a href="https://www.youtube.com/watch?v=ioE7otHIt04">https://www.youtube.com/watch?v=ioE7otHIt04</a>
<b>Laburpena:</b> 'Rural y mujer en cinco voces' Paisaia, Ekologia eta Generoa GGKEak Caceresko Diputazioaren finantzaketarekin egindako "Mujeres rurales protagonistas de la pervivencia de sus comunidades" proiektuaren parte da.	
<b>Eztabaidarako galdera posibleak:</b> Zergatik gustatzen zaie herrian bizitzea dokumentalean agertzen diren emakumeei? Zer lanbide garatzen dituzte? Zer arazo daude herrietan jendeak bizitzeari uzten dionean? Pertsona heldua zarenean herri batean bizitzea eta lan egitea gustatuko litzaizuke?	



<b>Izenburua:</b> Rural es feminista	<b>Zuzendaria:</b> Sara Brun Moreno eta Xavi Berraondo
<b>Iraupena:</b> 7 min	<b>Esteka:</b> <a href="https://www.youtube.com/watch?v=EbY4TVd4mTs">https://www.youtube.com/watch?v=EbY4TVd4mTs</a>
<p><b>laburpena:</b> Carmenek, laurogeitaka urteko emakumeak, egunero egiten dio bisita senarrari hilerrian, baina gaur egun oso gauza garrantzitsua du kontatzeko: feminista egin da. Protagonistak bere senarrari bere erabakiari buruz ematen dizkion azalpenen bidez, emakumeek herrietan bizi dituzten egoera ezberdinak ikusiko ditugu. Lourdes ezagutuko dugu, adibidez, azkenean berak lantzen dituen lurrak bere izenean jarri ahal izan dituen; edo Silvia, nekazaria, berak eramaten duelako baserria, ez nekazari baten emaztea delako. 'Rural es feminista' Nafarroako Aragoi Haranean filmatu dute, zehazki Zarrakaztelu, Santakara, Mélida, Murillo el Fruto eta Figarol herrietan, eta herri horietako biztanleen partaidetza izan du.</p>	
<p><b>Eztabaidarako galdera posibleak:</b> ¿Zer esan nahi du feminismoak? Emakumeek orain egiten dituzten lanen zein adibide jartzen ditu Carmenek? Zer esan nahi du 'buru-karga' izateak? Zergatik dio Carmenek herriak ez direla postal bat, gainerako oxigenoa eta elikagaiak hornitzen dituztenak baizik?</p>	

<b>Izenburua:</b> Soberanía alimentaria y feminismo	<b>Zuzendaria:</b> Justicia Alimentaria
<b>Iraupena:</b> 17 min	<b>Esteka:</b> <a href="https://www.youtube.com/watch?v=OSDq6gRPDp8">https://www.youtube.com/watch?v=OSDq6gRPDp8</a>
<p><b>Laburpena:</b> Andaluziako landa-eremuari lotutako hainbat emakumek beren lurraldeetako elikadura burujabetzaren aldeko aldaketa-eragile gisa izandako esperientziak kontatu dizkigute. Beren eguneroko ekintzak, banakakoak eta kolektiboak, indarguneak eta oraindik aurre egiteko dituzten erronkak kontatzen dizkigute.</p>	
<p><b>Eztabaidarako galdera posibleak:</b> Nor arduratu izan da tradizioz familiako elikaduraz? Zer da ekofeminismoa eta zer harreman du elikadura-subiranotasunarekin?</p>	

<b>Izenburua:</b> Cerrando las brechas y desigualdad de género	<b>Zuzendaria:</b> Justicia Alimentaria
<b>Iraupena:</b> 9 min	<b>Esteka:</b> <a href="https://www.youtube.com/watch?v=Ymz0bU-Z7Y">https://www.youtube.com/watch?v=Ymz0bU-Z7Y</a>
<p><b>Laburpena:</b> Bideo dokumental honek Yampara 9 emakume indigenen testigantzak jasotzen ditu. Emakume horiek "Gestión Territorial indígena para el Buen Vivir del pueblo Indígena Yampara" proiektuan parte hartu zuten. Emakume horiek Boliviako Yampara Nazioko 7 komunitate indigenetan emakumeek lurra eskuratzeko eta eskubide kolektiboak eta indibidualak baliatzeko testuinguruari eta sustatutako aldaketei buruzko lekukotasunak ematen dituzte.</p>	
<p><b>Eztabaidarako galdera posibleak:</b> Zergatik da garrantzitsua emakumeek lurra eskura izatea? Nola hobetu dira Yampara emakume nekazarien eskubideak? Zein izan da aldaketa sozial nagusia?</p>	

## 5. JARDUERA: ABESTIAK ETA EKOFEMINISMOA

**Helburua:** Hainbat abestiren bitartez, landa-eremuko emakumeen eginkizunari buruz hausnartzea eta haien lana aintzat hartzea sustatzea.

**Garapena:** Gelan lantzeko lau abesti proposatzen ditugu. Lau egunetan, saioa hastean jar daitezke ikasleek horien gainean hausnar dezaten edo gelan modu espezifikoan landu daitezke. Azken aukera horretan, letrak internetetik har daitezke edukia sakonago aztertzeko.

Abestiak honako hauek dira: 'Trampas al reloj', Isabel Marco abeslari aragoiarrarena; 'Mujer frontera', Clara Peya, Alba Flores eta Ana Tijouxek Huelvako emakume jurnalarien omenez egindakoa; 'Despacito. Mujeres al viento' Ganaderas en red elkartearena; eta 'Rumba rural', 'El muerto vivo' abestiaren bertsioa, Molina de Aragon (Guadalajara) herriko emakume ekintzaile landatarrek egina.



<b>Izenburua:</b> Trampas al reloj	<b>Artista:</b> Isabel Marco
<b>Iraupena:</b> 4:42 min	<b>Esteka:</b> <a href="https://www.youtube.com/watch?v=S_SGLr8_am8">https://www.youtube.com/watch?v=S_SGLr8_am8</a>
<p><b>Laburpena:</b> Abesti hau baserriko emakumeei egindako omenaldia da. Izan ere, eguzkitik eguzkira lan egin behar izan dute beren etxeak aurrera ateratzeko, landa-lan guztiak egiteko, animaliak zaintzeko, beren etxeez arduratzeko eta inguruan zuten guztiari bularra emateko. Hori guztia lortzeko, egileak erlojuari tranpak egiten dizkiotela pentsatzen du.</p>	
<p><b>Eztabaidarako galdera posibleak:</b> Zergatik ez da aitortu tradizioz emakumeek egindako lana? Nola eutsiko litzaioke sistemari emakumeek lan ikusezin horiek egingo ez balituzte? Ezagutzen al duzue, abestiak dioen bezala, erlojuari tranpak egiten dizkion emakumerik?</p>	

<b>Izenburua:</b> Mujer frontera	<b>Artista:</b> Clara Peya, Alba Flores eta Ana Tijoux
<b>Iraupena:</b> 4:39 min	<b>Esteka:</b> <a href="https://www.youtube.com/watch?v=6BetfskzIMI">https://www.youtube.com/watch?v=6BetfskzIMI</a>
<p><b>Laburpena:</b> 'Mujer frontera' Huelvako Emakume Jornalariak Borrokan taldeari egindako omenaldi musikala da. Gizartetik kanpo dauden emakume horiei, sostengatzen duten emakumeei, familia elikatzeko beharragatik migratzen duten emakumeei egindako omenaldia da. Ikusezinak izan arren, gizartearen funtsezko zutabe diren emakumeak. Bizi duten errealitatean, araua da besteen beharrak beren beharren gainetik jartzea. 'Mujer frontera' filmak bere historiaren protagonista gisa erretratatu nahi ditu, eta munduan duten funtsezko lekua aldarrikatzen du.</p>	
<p><b>Eztabaidarako galdera posibleak:</b> Ezagutzen al duzue Huelvako Jornalariak Borrokan taldea? Ba al zeneukate Huelvako fruitu gorrien bilketan lan egiten duten emakume jornalarien berri? Bazenekite gehienak jatorrian kontratatutako emakume marokoarrak direla? Zuen ustez, zergatik daude nekazaritzako elikagaiak migratzaileak behar dituztenak biltzeko? Zer egin dezakegu nekazaritzako elikagaien sisteman lan-esplotazioa saihesteko?</p>	

<b>Izenburua:</b> Despacito. Mujeres al viento	<b>Artista:</b> Ganaderas en red
<b>Iraupena:</b> 4:08 min	<b>Esteka:</b> <a href="https://www.youtube.com/watch?v=AlrABA_uIOs">https://www.youtube.com/watch?v=AlrABA_uIOs</a>
<p><b>Laburpena:</b> 2017an, Luis Fonsi eta Daddy Yankeeen 'Despacito' abestiaren bertsio honekin biralizatu zen Ganaderas en red, estentsiboan dauden emakume abeltzainen talde bat. Bertan, abeltzain hauek emakumeak abeltzaintzan duen papera defendatzen dute eta euren lana ikusarazi nahi dute hirietatik haratago bizitza dagoela aldarrikatuz.</p>	
<p><b>Eztabaidarako galdera posibleak:</b> Ezagutzen al zenuten "Ganadutegiak sarean" kolektiboa? Zergatik abeltzaintzan profesionalki diharduten pertsonengan pentsatzen dugunean batez ere gizonengan pentsatzen dugu? Zergatik aldarrikatzen dute hiritik kanpo bizitza dagoela?</p>	

<b>Izenburua:</b> Rumba rural	<b>Artista:</b> La Artesa proiektuaren emakumeak
<b>Iraupena:</b> 5:58 min	<b>Esteka:</b> <a href="https://www.youtube.com/watch?v=U0rb0CKhDi4">https://www.youtube.com/watch?v=U0rb0CKhDi4</a>
<p><b>Laburpena:</b> Molina - Alto Tajo (Guadalajara) eskualdeko landa eremuko emakume ekintzaileek Pereten 'El muerto vivo' abestiaren letra moldatu dute, gizarte osoari bizirik daudela adierazteko eta landa ingurunea bizirik mantentzeko alternatibak bilatzeko.</p>	
<p><b>Eztabaidarako galdera posibleak:</b> Zergatik da garrantzitsua herriak bizirik mantentzea? Zuetako zenbat hazi zarete herri batean? Zenbati gustatuko litzaizueke zuen jarduera profesionala batean bititza eta betetzea? Zergatik?</p>	



## **BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA**

- Ikastaroa: Ecofeminismo: un reto educativo para formación profesional. Pandora Mirabilia, género y comunicación elkarteak egin eta Alimentación sareak antolatua.  
Hemen eskuragarri: <https://redalimentacion.org/es/curso-ecofeminismo>
- Yayo Herreroren hitzaldia II Congr s de Formaci  Professional i EAE de la Comunitat Valenciana biltzarrean.
- La maleta pedag gica ecofeminista. Cerai, La Sostenibilitat al plat y Gar a.  
Hemen eskuragarri: <https://cerai.org/la-maleta-pedagogica-ecofeminista-para-profesorado/>
- Emakumeen jakintzek gordetzen duten zientzia. SORKIN.  
Hemen eskuragarri: [https://www.sorkinsaberes.org/sites/default/files/archivos/sorkin-guia\\_revisada\\_eus.pdf](https://www.sorkinsaberes.org/sites/default/files/archivos/sorkin-guia_revisada_eus.pdf)
- Genero-ikuspegia curriculumean eta araubide bereziko eta lanbide heziketako ikasketetako irakaskuntza-jardueretan txertatzeko gidaliburua: Lanerako Prestakuntza eta Orientabiderako (FOL) eta Enpresa eta Ekimen Sortzailerako (EES) proposamen zehatzak . Hemen eskuragarri:  
<https://www.euskadi.eus/web01-a2aznscp/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aDetallePublicacion.jsp?id=051801&tipo=L&id2=0001&impr=0001>
- Agroecofeminismo: la soberan a alimentaria y el feminismo de la mano. Etxaldeko Emakumeak taldeak Viento Sur aldizkarian argitaratua.  
Hemen: <https://vientosur.info/agroecofeminismo-la-soberania-alimentaria-y-el-feminismo-de-la-mano/>
- Dossier feminisme a l'aula. Activitats per a treballar el feminisme i la sobirania aliment ria a les aules de Prim ria i Secund ria.  
Hemen eskuragarri: <https://redalimentacion.org/es/recursos/dossier-feminisme-laula>


# ALIMENTACIÓN

ELIKADURA-JASANGARRITASUNAREN ALDEKO HEZKUNTZA-SAREA


ALIMENTACIÓN programa Justicia Alimentaria eta Hegoaren proposamenetik sortu zen elikadura burujabetzaren, jasangarritasunaren eta feminismoaren printzipioetan oinarritutako elikadura-eredu bat sustatzeko. Eredu horretan, ikastetxea elikadura onarekin, lurraldearekin eta bizitza zaintzarekin konprometitutako eraldaketa-eragile bilakatzen da. Horrexegatik, gure erakundeek irakasleak eta ikasleak laguntzen dituzte jakintzak partekatzeko eremuak sustatuz eta hezkuntzako edukiak eguneratzea eta egokitzea erraztuz, gure elikadura-ereduak gizartean, ekonomian eta ingurumenean eragiten dituen ondorio kritikoaren inguruan kontzientzia kritikoa sortzeko eta hezkuntza-komunitatea mobilizatzeko helburuz.

 <https://redalimentacion.org/eu>

 @redalimentacion

 <https://es-es.facebook.com/Alimentacion/>

 [aragon@justiciaalimentaria.org](mailto:aragon@justiciaalimentaria.org)

 Lanbide Heziketarako baliabide guztiak, hemen:  
<https://recursosfp.redalimentacion.org/eu/home-euskara/>



## ALIMENTACION PROGRAMA ERAKUNDE HAUEN PROPOSAMEN SOZIOHEZITZAILEA DA



## LAGUNTZAILEA

